


## 15 eta 19 urte bitarteko gazteak eta Gipuzkoako gazteak dira euskarazko webgunek edo Interneten euskaraz dagoen informazioa gehien kontsultatzen dituztenak

2018 urte bukaeran Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen laurden batek (% 25,6) adierazi zuen aurreko hiru hilabeteetan kontsultatu zituela Interneten euskaraz zeuden webgunak edo informazioa (% 5,2k esan zuen kontsultatutakoa erabat euskaraz edo gehienbat euskaraz zegoela eta beste % 20,4k bai euskaraz bai gaztelaniaz zegoela).

Gainerako gazteek gaztelaniaz zeuden webgunek edo erabat gaztelaniaz edo gehienbat gaztelaniaz zeuden dokumentuak kontsultatu zituzten (% 63,6) edo ez zuten kontsultarik egin edo beste hizkuntzatan zegoen informazioa kontsultatu zuten (% 10,8).

Webak edo dokumentazioa euskaraz irakurri zuten gazteen ehunekoa (% 25,6) Euskadiko 15 urtetik gorako biztanleria osoari dagokiona baino askoz handiagoa da (% 11,9).

Euskaraz dauden webak edo informazioa gehien kontsultatu dituztenak gazteenak dira (15-19 urte bitartekoak) eta ehunekoak beherantz doaz adinean gora egin ahala, grafikoan ikus daitekeen moduan. Lurralde historikoaren arabera azterketan ikus daiteke Gipuzkoako gazteek bizkaitarrek edo arabarrek baino gehiago kontsultatzen dutela Interneten euskaraz dagoen informazioa.



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Kulturaren Behatokiak emandako datuak oinarri hartuta (2018)*

Gazteen Euskal Behatokiak informazio hau aztertu du eta horretarako Kulturaren Behatokiak emandako datuak izan ditu oinarri. Datu horiek "[2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta](#)" izeneko ikerketatik atera dira.